

Haurrentzako barazkiak



Baratze batek aukera ugari eskaintzen dizkigu haurrekin gozatzeko; izan ere, tresna bikaina baita ingurumenaren kulturaren murgiltzeko. Landare baten bizitza-ziklo osoa ikusteko gune aproposa da; ereiten denetik fruitua ematen duen arte. Jarraian haur guztiek gogoko dituzten bi labore gosegarri aurkeztuko dizkizuegu: **ekilore-pipitak eta krispetak**.

Ekilorea (*Helianthus annuus*) hain gozoak eta elikagarriak diren pipitegatik ezagutzen dugun laborea da. Hau gutxi balitz, erleak bezalako hainbat animalia polinizatzaile erakartzen dituzte eta kuiak, kuiatxoak eta piperrak bezalako fruitudun barazkien polinizazioan lagungarriak dira. Ekilorea ereiteko, kontuan izan behar dugu apirila bukaeran erein behar dela, izozteen sasoia iragan denean. Uzta biltzeko, hazia helduta dagoela jakingo dugu lorearen atzealdea berdetik marroi kolorera aldatzen denean; toki epel eta lehorrean utziko dugu astebetean.



Krispeta (*Zea mays*) "popcorn" motako artoa da eta ohiko artoak baino almidoi gehiago izaten duen arren, antzerako hazkuntza-beharrak ditu. Ereiteko sasoia maitatza izaten da eta udazken hasieran,

izozteak hasi baino lehen eta artaburuak lehortzen direnean, biltzen dira. Aleak borobilak, kolore on eta distiratsudunak izaten dira. Artaburuak toki freskoan eta ondo aireztatuan utzi behar dira. Hilabetean lehortu ondoren, aleak banandu eta kristal iluna duen ontzian gorde.

Txikientzat praktika oso erakargarria da jogurt poteak biltzea eta hazitegirako lurrarekin bete ondoren, pipita bat edo bi ereitea ontzi bakoitzean. Hasierako hazkuntza-aldian etxean zainduko ditugu hezetasuna eta argitasuna zainduz; etxeko balkoia toki egokia izaten da. Lehendabiziko bi hostoak garatu dituzten landaretxoak izaten ditugunean, gure baratzean birlandatuko ditugu.



Hortalizas para niños

Una huerta ofrece multitud de opciones para disfrutar con los niños ya que se trata de una herramienta donde se pueden introducir en la cultura del medioambiente. Es el espacio idóneo donde pueden ver todo el ciclo vital de una planta, desde que se siembra hasta que fructifica. A continuación os presentamos dos cultivos apetitosos que gustan a todos los niños, como son las pipas de girasol y las palomitas.

El girasol (*Helianthus annuus*) es un cultivo conocido por esas semillas tan nutritivas y sabrosas que los conocemos como pipas. Si esto fuera poco suelen atraer diferentes animales polinizadores como las abejas que ayudan en la polinización de hortalizas de fruto como pueden ser las calabazas, calabacines, pimientos... Para sembrar el girasol tenemos que tener en cuenta que se deben de sembrarse hacia finales de abril cuando ya ha pasado la época de heladas. Para cosecharlo tenemos que fijarnos en que la semilla estará madura cuando el reverso de la flor cambia de verde a marrón, se deja en un lugar cálido y seco durante una semana.



Las palomitas son un tipo de maíz (*Zea mays*) de tipo "popcorn" que suele tener más almidón que el maíz habitual pero el resto de necesidades de crecimiento son similares. La época para sembrarlas suele ser mayo y se recolectan a comienzos de otoño antes de las heladas y cuando se sequen las mazorcas. Los granos deben de ser redondos, de buen color y brillantes. Debe de dejar las mazorcas en un lugar fresco y bien ventilado. Tras secarlos durante un mes separe los granos y guardalos en un recipiente de cristal oscuro.

Es una práctica muy atractiva para los más pequeños reunir botes de yogures y tras rellenarlos con tierra de semillero sembrar una pipa o dos por cada recipiente. Los cuidaremos durante las primeras etapas de crecimiento en casa vigilando la humedad y la iluminación, el balcón de casa suele ser un lugar adecuado. Una vez que tengamos una plantita que ya ha desarrollado las primeras dos hojas verdaderas podremos empezar a pensar en transplantarlo en nuestra propia huerta.

